



COUNCIL OF EUROPE    CONSEIL DE L'EUROPE

European Language Portfolio

Portfolio Européen des Langues



Portfolio europeo de las lenguas  
Portfolio europeu de les llengües  
European Language Portfolio  
**Hizkuntzen Portfolio Europarra**  
Portfolio européen des langues  
Portfolio europeo das linguas  
Portfolio europeu de les llengües  
(12-18 urte)





**MINISTERIO DE EDUCACIÓN Y CIENCIA**  
**SECRETARÍA GENERAL DE EDUCACIÓN**  
Subdirección General de Programas Europeos

Edita:  
© SECRETARÍA GENERAL TÉCNICA  
Subdirección General de Información y Publicaciones

N.I.P.O.: 176-04-130-1  
Dep. Legal: M-15.713-2004

Imprime: OMAGRAF, S.L.  
Madrid



# Hizkuntzen Portfolio Europarra

*Hizkuntzen Portfolio Europar* honek helburu du zuri laguntza ematea edozein hizkuntza ahalik eta ondoen ikasteko eta Europan dugun aniztasun linguistiko eta kulturala ulertu eta baloratzeko.

*Hizkuntzen Portfolio Europarra* Europako Kontseiluaren proiektua dugu, bertako partaide diren guztientzat (berrogeitik gora gaur egun). Beste herrialde batzuetan ere, Bigarren Hezkuntzako ikasleak ari dira, zure antzera, hau bezalako Portfolioa erabiltzen.

Hona hemen koaderno honekin egin ahal izango dituzun jardunak:


- Hizkuntza bakoitzean duzun maila jakin, nazioarteko eskala baten arabera.
- Ikasprozesuan dituzun helburuak zehaztu eta egindako aurrerapenak idatzi.
- Zeure ikasteko moduez jabetu eta indartu.
- Ikaskideon eta beste hainbat giza talderen artean dauden ezberdintasun linguistiko eta kulturalak hobeto ezagutu eta errespetatu.


Jarraibide hauekin lortuko duzu ikasle autonomoagoa, eraginkoragoa eta adeitsuagoa izatea, eta zure kabuz ikasteko ahalmena ere areagotuko duzu.

Portfolio honek hiru atal ditu:

- *Hizkuntzen Pasaportea*, nazioartean homologatutako formatua eta eskalak dituena. Pasaporte honek bide emango dizu besteen aurrean frogatu ahal izateko zenbat hizkuntza erabiltzen duzun, zer-nolako maila duzun horietako bakoitzean, lortu dituzun ziurtagiriak eta diplomak edota kulturekin izan dituzun esperientziak.
- *Hizkuntza-biografia*, birziklatzeko material eta orriez egina. Bertan, bizitzan zehar hainbat hizkuntzekin eta kulturekin izandako esperientziak jaso ahal izango dituzu. Horrez gain, horiek aztertzen eta baloratzen lagunduko dizu.
- *Dosierra*, plastikozko bi poltsa dituena. Bertan, hainbat idazlanen eta mintzameneko grabazioen adibideak gorde ahal izango dituzu.

*Hizkuntzen Portfolio Europarrak* bere baitan hartzen ditu institutuan edo institututik kanpo ezagutzen eta ikasten ari zaren hizkuntza guztiak. Bigarren Hezkuntzan zehar, zeure irakasle eta tutoreekin erabili ahal izango duzu hainbat eskola-emankizunetan eta ikasturtetan.





# Hizkuntza-ikaslearen gida

## Hizkuntzen Portfolio Europarra (12-18 urte)

Gida honek aukera emango dizu Hizkuntzen Portfolio Europarra zeure kabuz erabili ahal izateko. Bertako dokumentuak baliatu eta osatu ahal izan ditzazun oinarrizko jarraibideak eta zenbait gomendio ere eskainiko dizkizu –irakaslearen edo beste norbaiten laguntzaren zain egon beharrik gabe–.

Halakoetan erabili ahal duzu:

- Beste norbaiti hizkuntza bakoitzean zertarako zaren gai erakutsi behar diozunean.
- Ikasi duzunaren edo ikasi nahi duzunaren gainean hausnartu nahi duzunean.
- Sortu dituzun materialak gorde nahi dituzunean (idatziak, grabazioak, etab.).

Gida honek sei zati ditu. Lehendabiziko bi zatiek Portfolioa aurkeztu eta deskribatu egiten dute eta gainontzeko zatietan eskainitako informazioa osatu. *Nola erabili?* zatian, modu eraginkorragoan lan egiteko oinarrizko argibide zenbait aurkituko duzu. Irakur itzazu arretaz zati horiek.

Amaierako hiru zatiek Portfolioaren hiru ataletako bakoitzarekin lan egin ahal izateko jarraibide zehatzak azaltzen dituzte, adibide bidez. Atalak erabili ahala irakur itzazu.





# 1. Zer da Portfolioa?


*Hizkuntzen Portfolio Europarra* Europako Kontseiluaren egitasmoa da, eta helburu du Europako kultura-nortasunaren kontzientzia sustatzea eta hizkuntza eta kultura ezberdineko herrien arteko elkar ulertzea garatzea. Xede ditu, halaber, hizkuntzen ikaskuntza autonomia eta kultura arteko esperientziak bultzatzea.

Europako Kontseilua gobernu arteko erakundea da, Estrasburgon (Frantzia) du egoitza, eta berrogei kide baino gehiago ditu. Eginkizunik behinena du kontinentearen batasuna indartzea, Europako hiritarren duintasuna bermatzea eta funtsezko balio ditugun demokrazia, giza eskubide eta zuzenbide-estatuarenganako begirunea sustatzea.

Espanian, Hezkuntza, Zientzia eta Kirol Ministerioa gogor ari da egitasmo hau bultzatzen, Autonomia Erkidegoetako hezkuntza-administrazioekin batera. Aipatutako Europako xedeez gain, estatuko hizkuntza eta kulturen arteko eza gutza eta elkar ulertzea ere baditu helburu.


Portfolioaren bertsio hau bigarren hezkuntzako ikasleentzat, 12-16 edo 18 urte bitartekoentzat dago pentsatua. Baina badira bestelako maila eta adinetarako bertsioak ere: Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta helduena. Lehen Hezkuntzan jada aritu bazinen Portfolioarekin, ohartuko zara esku artean duzun hau haren segida dela. Batxilergora edo unibertsitatera iristean, helduen Portfolioa ere erabili ahalko duzu.

Guztiok eduki dezakegu Portfolioaren bat bizitzan zehar, inoiz ez baitiogu uzten hizkuntzak ikasteari: etenik gabe ari gara geurea dugun hizkuntzako hitzak eta esamoldeak ikasten, beste hizkuntza batzuk ikasten hasten gara, atzerriko herrialdeetara bidaiatzen dugu, bestelako hizkera darabilten gaiek interesa pizten digute, etab. Horregatik, Portfolioaren helburua da hizkuntza eta kultura horien hartzaille hobeak izaten laguntzea, modu eraginkorragoan, kontzienteagoan eta zuzenagoan ikasi ahal izan dezagun.



## 2. Portfolioaren atalak eta materialak

Portfolioak hiru atal ditu: *Hizkuntzen pasaporte*, *Hizkuntza-biografia* eta *Dosierra*. Atal bakoitzak hainbat material biltzen du, ondoko grafikoak adierazi bezala:



*Dosierrean* gorde ditzakezu hizkuntza bakoitzean egindako ahozko (grabazioak) eta idatzizko ekoizpenen adibideak. Dokumentu hauek lagunduko dizute zure bizitzan zehar egindako hizkuntza-ikasketen gainean hausnarketa egiten. *Biografian* aurkituko dituzu hausnarketa honetan lagunduko dizuten jarduerak; hauxe duzu atalik zabalena eta hezigarriena. Azkenik, *Pasaportean* zure hausnarketetako ondorioak idatz ditzakezu, gainontzekoek ezagutu dezaten zeintzuk diren zure hizkuntza eta kultura arteko ezagupenak eta gaitasunak.




### 3. Nola erabili?

Hona hemen Portfolio honekin lan egin ahal izateko gomendio batzuk:

- Hau ez da testu-liburu edo ariketa-koaderno bat; ez duzu nahitaez bete behar edo erantzun jakinik edo aldez aurretik zehaztutakorik eman behar. Hizkuntzen ikasketaren gaineko zure ezagupenak eta gaitasunak hobetzeko tresna da, noizean behin erabili ahal duzuna.
- Hainbat ikasgela eta ikastetxetan erabil dezakezu (instituan, hizkuntza-akademian, atzerriko ikasle-trukeetan) edo ikasgelatik eta ikastetxetik kanpo, zure kabuz.
- Idatz itzazu bertan hizkuntzak ikastea eta kulturak ezagutzeari izan dituzun esperientzia aipagarri guztiak: hitz egin, ulertu, irakurri edo idazten dituzun hizkuntza guztiak; ikasgelan edo kalean ikasitakoak; beste kultura batzuekin izandako harremanak (bidaiak, ikasle-trukeak, atzerritarrekin izaniko harreman luze eta ez hain luzeak, etab.).
- Hainbat urtetan erabiliko duzunez, komenigarria litzaizuke aldian behin material hauetako batekin eginiko lana erreplikatzea, hizkuntza bakoitzean egindako aurrerapena egiazta dezazun. Horretarako, fotokopia itzazu orriak eta bete itzazu nahi adina aldiz; ez ezazu ahaztu lantzen duzun orri bakoitzean data jartzea.

## 4. Nola lan egin Dosierrarekin?



Arkitekto, dekoratzaile, margolari, modelo edo bestelako profesional askok *dosier* edo *karpeta* bat izaten dute bertan gordetzeko beren lanik onenen argazki, marrazki, ziurtagiri eta bestelako dokumentuak. *Dosier* horrek balio die egin dituzten lanen ezaugarriak eta xehetasunak erakusteko balizko bezero eta enpresariei. Era berean, dosier hau baliagarri izango zaizu jabetzeko zeintzuk diren zure hizkuntza-ekoizpenik onenak eta zein ezaugarri dituzten.

Erabil ezazu *Dosierra*,

1. hainbat hizkuntzako idazkiak, ahozko grabazioak, dokumentuak eta oroigarriak sailkatzeko eta gordetzeko.
2. dokumentu bakoitzaren ezaugarriak balioesteko (kalitatea, maila, etab.) eta aurreko garaietakoekin erkatzeko.


Jarrai itzazu argibide hauek:

1. Bila eta jaso itzazu interesgarri jotzen dituzun ikasketa-dokumentu guztiak.
2. Sailka itzazu dokumentu horiek bi multzotan:
  - 1 multzoa.** Zure ustez aipagarrienak diren hizkuntza-ekoizpenak: idatzizkoak (idazlanak, eskutitzak, mezu-elektronikoak, oharak, ariketak) edo ahozkoak (hizketaldi laburretako grabazioak, elkarrizketak, etab.).
  - 2 multzoan.** Dokumentuak (ziurtagiriak eta bidaia-egitasmoak) eta oroigarriak (postalak, museoetako edo bestelako kultura-guneetako sarrerak, tren-txartelak; erabilera-orriak, etab.)
3. Ordena itzazu multzo bakoitzeko dokumentuak eta osa itzazu *lan eta dokumentuen aurkibideko* taulak (55. or.). Adi egon! Ez ezazu ahaztu, *Zergatik aukeratu nuen?* zutabea, oso garrantzitsua da eta.

Dosierra ondo osatzeak lagunduko dizu Portfolioaren gainontzeko atalak ere egoki burutzen. Berrikus itzazu Dosierreko dokumentuak noizean behin.



## 5. Nola lan egin Hizkuntza biografiarekin?



Askok idazten dute beren bizitzako biografia, bizi izandako esperientziak gogora ekartzeko, dokumentatzeko eta esperientzia horien gainean hausnarketa egiteko. Modu berean, *Hizkuntza-biografia* honek ahalbidetuko dizu gogoratu ahal izatea hizkuntzen eta kulturen ikaskuntzan izan dituzun esperientziarik onenak, eta zenbat ikasi duzun eta nola ikasi duzun aztertzea.

Erabil ezazu *Biografia*,

- hizkuntza bakoitzean egiten dakizunaz jabetzeko eta ikasi nahiko zenukeenaren gainean planak egiteko,
- hizkuntzak ikasteko duzun modua hobeto ezagutzeko,
- zure inguruan hitz egiten diren hizkuntzak ezagutzeko eta balioesteko.

### Nire hizkuntzak

Atal honetan, hausnarketan arituko zara erabiltzen dituzun hizkuntzen gainean:

*Zein hizkuntzatan jarduten dut besteekin?* 5. orriko taulan identifikatu ahal izango duzu zeintzuk diren zure hizkuntzak, erabili ohi dituzunak eta ikasten ari zarenak (ez sartu hizkuntza bat ez badakizu gutxienez 50 hitz hizkuntza horretan).

*Zer dakit egiten nire hizkuntzetan?* Bost taula hauetan (7-15. or.) zure hizkuntzetan dituzun gaitasunak ezagutu ahalko dituzu. Errepara iezaiozu adibide honi:

Irakurmena:		15-10-03	24-11-04		
A1	Ulertzen ditut izen eta hitz arruntak, baita esaldi oso errazak ere, gertuko ditudan idatzietan (adibidez, iragarki, kartel eta ordutegietan).	E	G	E	G
		I		I	
A2	Gai naiz oso testu labur eta errazak ulertzeko (esate baterako, argibide, menu, katalogo edo eskutitz pertsonal laburrak). Badakit horietan interesatzen zaidana eta informazio jakina aurkitzen.	E	G	E	G
				I	
B1	Ulertzen dut ohiko eta eguneroko idazki arruntetako informazio nagusia (egunkarietako albiste eta iragarkiak, eskutitz pertsonalak, jarraibideak). Testu hauetan ulertzen ditut gertakariak eta pertsonen sentimenduak.	E	G	E	G
B2	Egungo gai eta arazoak jorratu eta hainbat ikuspuntu hartzen dituzten prentsa-artikuluak eta txostenak irakur ditzaket. Literatura garaikidea ere irakur dezaket.	E	G	E	G

Hizkiek balio digute laukitxoan esaten dena zein hizkuntzatan egiteko gai zaren adierazteko (E= euskara; G= gaztelania; I= ingelesa). Erantzun baino lehen, irakur itzazu laukitxoak arretaz, eta beharrezkoa bada, egiazta ezazu eguneroko bizitzan gai ote zaren bertan esaten dena egiteko. Ez ezazu ahaztu data jartzea zutabearen goiko aldean.

Bost taula hauekin ezagutu ahal izango duzu zeintzuk diren zure gaitasunak hizkuntza guztietan. A1-C2 kodeek adierazten dituzte Europako Kontseiluak hizkuntzen ezagutzan ezarritako maila estandarrak. Hizkuntza baten eta besteren artean ere aldera ditzakezu zure gaitasunak eta trebeziak.

*Zer dakit egiten nire inguruko hizkuntzetan? (27-36. or.)* eta *Zer dakit egiten nire atzerriko hizkuntzetan? (17-25. or.)*. Bost taulaz osaturiko bi multzo hauek aurrekoak baino zehatzagoak dira, eta zehatzago joka dezakezu horietan. Erabil itzazu *Inguruko hizkuntzetako* taulak zure inguruan erabiltzen diren hizkuntzetarako (etxean, institutuan, kalean) eta *atzerriko hizkuntzetakoak*, zure inguruan erabiltzen ez direnetarako. Errepara iezaiozu adibide honi:

Italiara		Elkarrizketa		3-7-01	23-7-01		
A1	Gai naiz ikaskideekin eta irakaslearekin komunikatzeko elkarrizketa laburren bidez, ikasgaietan ikasitako moldeak erabiliz eguneroko gaiak lantzen badituzte.	∇	XX				
	Ikasgaietan azaldutako esamoldeak erabiltzen ditut, aurretik horien esanahia ikasi ondoren. Gai naiz jendea agurtzeko, nola dauden galdetzeko, argibideak eskatzeko, etab.	∇	XX X				

Taula hau bete zuena italiara ikasten hasi zen uztaileko uda-ikastaro batean: ∇ ikurra erabili zuen hasieran zer ikasi nahi zuen adierazteko (01-7-3) eta X ikurra erabiliz ebaluatu zuen bukaeran lortutakoa (lauki bakoitzeko X kopuruak adierazten du lortutakoaren balorazioa).

Erabil itzazu taula hauek identifikatzeko zer egiteko gai zaren hizkuntza bakoitzean edo zer egiten ikasi nahiko zenukeen zure ikasprozesuan.

*Nola hitz egiten dituzte nire hizkuntzak beste batzuek? Osa ezazu taula hau (37. or.) hitz egitean denok erabiltzen ditugun dialekto, azentu eta hizkeren gainean hausnarketa egiteko.*

### Beste hizkuntza batzuk

*Zein beste hizkuntza hitz egiten da nire inguruan? Osa ezazu taula hau zure inguruan erabiltzen diren beste hizkuntzak identifikatzeko (39. or.). Kontuan izan ikaskideak, auzokoak, lagunak, etab. Zer dakizu hizkuntza bakoitzari buruz? Bila ezazu informazioa eta idatz ezazu orrian.*



## Nire ikasteko modua

Biografiaren zati honetan gogoeta egin ezazu ikasteko erabiltzen dituzun estrategien inguruan. Hobeto ikasteko modu bat, norberaren ikasteko moduaren kontzientzia hartzea da.

*Nola ikasten dut?* Beha ezazu zer egiten duten gainontzekoek ikasteko (41-43. or.) eta idatz ezazu taula bakoitzean zuk zer egiten duzun. Saia zaitzez zehatza izaten.

*Zer ikasi dut eta zerk lagundu izan dit ikasten?* Pentsa ezazu orain ikasi izan dituzun esamolderik garrantzitsuenetako batzuen gainean eta zein metodo edo baliabide erabili izan duzun esamolde horiek ikasteko. Idatz ezazu taulan (45. or.).

Zer ikasi dut?	Zerk lagundu izan dit? Nola ikasi izan dut?
If I were a... <i>nahiak edo hipotesiak adierazteko ingelese</i>	If I were a richman <i>hasten den kantuarrekin,... uste dut "biolin-jolea teiltuan" filmekoa dela. Gustuko ditut kantuak, eta musikarekin erraz gogoratzen ditut letrak.</i>
Deort chay ...(lau te) <i>turkieraz, Turkiara bidaiaria egin nuenekoa</i>	<i>Oso egarri nintzen eta hitzak hiztegian aurkitu nituen. Gero erraz gogoratu nituen, egunero erabiltzen nituelako.</i>


*Zer egiten dut ikasgelatik kanpo ikasteko?* Erabil ezazu taula hau (47. or.) egunerokotasunean hizkuntzak ikasteko zer egiten duzun aztertzeko. Marka ezazu X batez zer egiten duzun (*egiten dut* zutabean) eta zer egiteko asmoa duzun (*egin nahiko nuke* zutabean).

## Nire ikasketa planak

*Zer ikasi nahi dut egiten hizkuntza bakoitzean?* Balia ezazu zati hau (49. or.) etorkizuneko zure ikas-planak azaltzeko. Erabaki ezazu zein hizkuntza ikasi nahi duzun, zer jakin nahi duzun egiten hizkuntza horrekin, nola ikasiko duzun, etab. Begira itzazu *Nire hizkuntzak* eta *Nire ikasteko modua* zatiak, zure ikasketa helburuak eta estrategiak finkatu ahal izateko.



## 6. Nola lan egin Hizkuntzen Pasaportearekin?



Pasaporte arrunt batek atzerrira joan eta beste herrialde batzuk bisitatzeko aukera ematen duen bezala, *Hizkuntzen Pasaportea* aukera emango dizu hizkuntzen arteko mugak gainditzeko. Horrela, ahalbideratuko du Europako edozein lurraldetako pertsonak jakin ahal izatea zer egiteko gai zaren ezagutzen dituzun hizkuntzetan, erraz jakin ahal izatea hizkuntza horietako bakoitzean zein maila duzun edo balioetsi ahal izatea izan dituzun kultura arteko harreman-esperientziak. Funtzio hau erraztu ahal izateko, *Hizkuntzen Pasaportea* antzeko formatua du Europako Batasuneko herrialde guztietan, nahiz eta diseinuan aldaketak izan ditzakeen.

*Hizkuntzen Pasaportea* egoera hauetan erabil dezakezu:

- Beste norbaiti hizkuntza bakoitzean zer egiten dakizun erakutsi behar diozunean (ikastetxe, hiri edo herriz aldatzean).
- Bizi izan dituzun kultura arteko esperientziak erakutsi nahi dituzunean (bidaiak, atzerriko ikasketak, ikasle-trukeak, etab.).
- Eskuratu dituzun ziurtagiri eta diplometako daturik esanguratsuenak idatzi eta ordenatu nahi dituzunean.

*Hizkuntzen Pasaportearekin* batera datoz jarraibideak eta adibideren bat, autoebaluazio taulak erraz bete ahal izateko. Betetzeko orduan, erabil ezazu *Nire hizkuntzak* zatian alde aurretik egindako lana eta *Dosierrean* idatzitako ziurtagirien aurkibidea.



COUNCIL OF EUROPE    CONSEIL DE L'EUROPE

European Language Portfolio

Portfolio Européen des Langues



MINISTERIO DE EDUCACIÓN Y CIENCIA

# Hizkuntza-biografia

## Bigarren Hezkuntza

# 2





# Hizkuntza-biografia

## Bigarren Hezkuntza

*Hizkuntza-biografia* hau *Hizkuntzen Portfolio Europarraren* ataletako bat da, *Hizkuntzen Pasaportearekin* eta *Dosierarekin* batera. Helburu nagusia du zuri laguntzea bizitzan zehar hizkuntzak ikasteko orduan eta kultura arteko harremanetan esperientziak balioesten eta aztertzen.

*Biografia* honek aukera emango dizu:

- Zure hizkuntza-ezagutzak eta gaitasun-linguistikoak autoebaluatzen ikasteko.
- Komunikazio beharrak atzemateko eta ikasketa-helburuak zehazteko.
- Hizkuntzak ikasteko moduaren gaineko kontzientzia har-tzeko eta ikasketa hobetzeko modua aurkitzeko.
- Zure ikaskideen hizkuntzak eta kulturak errespetatzeko eta hobeto ezagutzeko.
- Pertsonen hizkuntza, kultura eta komunikazioaren gainean gehiago ikasteko.

Oro har, *Biografia* honek aukera emango dizu *Hizkuntzen Pasaportea* zehaztasun eta ezagutza handiagoz betetzeko.



COUNCIL OF EUROPE  
CONSEIL DE L'EUROPE

European Language Portfolio

Portfolio européen des langues

Bigarren Hezkuntzako Hizkuntzen Portfolio Europarra  
Egiaztatutako eredu: 52.2003 Zk  
European Language Portfolio for Secondary Education: accredited model No 52.2003

Honakoari aitortua / Awarded to

**MINISTERIO DE EDUCACIÓN  
Y CIENCIA. ESPAÑA**

Eredu hau bat dator Europako printzipio eta norabide komunekin.

KULTURA LANKIDETZARAKO KONTSEILUA  
HEZKUNTZA BATZORDEA-HPEren ONESPEN BATZORDEA

*This model conforms to common Principles and Guidelines.*  
STEERING COMMITTEE FOR EDUCATION





# Nire hizkuntzak

Zein hizkuntzatan jarduten dut bestekin?

Zein hizkuntza?	Non erabiltzen dut? Etxean, ikastetxean, lagunekin, etab.	Zer egiten dut? Hitz egin, irakurri, musika entzun, bidaiatu, etab.	Non ikasi nuen? Etxean, ikastetxean, bidaietan, lagunekin, etab.



## Zer dakit egiten nire hizkuntzetan?

### Entzumena

<b>A1</b>	Ohiko hitzak eta oinarrizko esapideak (norberari eta familiari buruzkoak) ulertzen ditut, argi eta lasai hitz egiten badute.								
<b>A2</b>	Ulertzen ditut lexiko eta esapide erabilienak, zuzenean dagozkidan arloetan (norberari eta lagunarteari buruzko informazioa, baita bizitokiari, ikastetxeari, salerosketei eta aisiari buruzkoa).								
<b>B1</b>	Gai naiz mezueta idea nagusiak ulertzeko, hizketaldia argia eta gaiak ezagunak direnean. Ulertzen dut funtsezkoa irrati edo telebistako saio askotan, gaurkotasuneko eta interes pertsonaleko gaiak direnean.								
<b>B2</b>	Ez dut inongo arazorik gai ezagunen inguruko hizketaldi eta hitzaldiak oro har ulertzeko, baita telebistako albistegiak eta filmak, azentua oso muturrekoa ez bada.								
<b>C1</b>	Gai naiz hizketaldi eta hitzaldi luzeak jarraitzeko, baita irrati eta telebistako saioak (filmak eta eztabaidak); baldin eta hitz egiten dutenek argi hitz egiten badute eta ez talde jakin bati dagokion hizkeran (dialektoak, gazte-argota edo hizkuntza teknikoak...).								
<b>C2</b>	Zailtasunik gabe ulertzen dut edonoren ahozko jarduna, azkar hitz egin arren, aurrez aurrekoa nahiz hedabideetakoak, baldin eta parte hartzaileen hizkerara ohitzeko denbora apur bat badut.								



## Zer dakit egiten nire hizkuntzetan?

### Irakurmena:

A1	Ulertzen ditut izen eta hitz arruntak, baita esaldi oso errazak ere, gertuko ditudan idatzietan (adibidez, iragarki, poster eta ordutegietan).								
A2	Gai naiz oso testu labur eta errazak ulertzeko (esate baterako, argibide, menu, katalogo edo eskutitz pertsonal laburrak). Badakit horietan interesatzen zaidana eta informazio jakina aurkitzen.								
B1	Ulertzen dut ohiko eta eguneroko idazki arruntetako informazio nagusia (egunkarietako albiste eta iragarkiak, eskutitz pertsonalak, jarraibideak). Testu hauetan ulertzen ditut gertakariak eta pertsonen sentimenduak.								
B2	Egungo gai eta arazoak jorratu eta hainbat ikuspuntu hartzen dituzten prentsa artikulua eta txostenak irakur ditzaket. Literatura garaikidea ere irakur dezaket.								
C1	Gai naiz literatura edo saiakera testu luzeak eta gai berrien inguruko artikulua espezializatuak irakurtzeko, eta horietan estilo nabardurak atzemateko. Makina edo tresnei buruzko jarraibideak ulertzen ditut.								
C2	Hizkuntza idatziaren edozein eredu erraz ulertzen dut, baita egitura konplexua eta gai abstraktua dituzten testuak ere, adibidez, gidaliburuak, artikulua espezializatuak eta literatura-lanak.								



## Zer dakit egiten nire hizkuntzetan?

### Ahozko adierazpena:

<b>A1</b>	Deskribapen eta narrazio laburrak egin ditzaket (bizilekuaz, inguruko pertso- nez, egin nahi dudana...), ikasitako esaldi laburrak eta esapide errazak erabi- liz.								
<b>A2</b>	Gai naiz deskribapen eta narrazio luzeak egiteko (pertsonek, institutuaren, nire ohitura eta zaletasunen, oporren, aisiaren eta abarren gainean) esaldi eta esapide arruntak erabiliz.								
<b>B1</b>	Badakit esperientziak eta gertaerak deskribatzen; badakit nire gurariak eta sentimenduak adierazten eta nire iritziak edo egitasmoak azaltzen; badakit is- torio edo pasadizo bat kontatzen (esate baterako, liburu edo film bateko bil- bea) eta horri buruzko iritzia ematen. Hori egitean, egoki lotzen ditut esaldi batzuk besteekin.								
<b>B2</b>	Azalpen argi eta zehatzak ematen ditut ezagutzen ditudan gaien inguruan. Horien gaineko ikuspuntua azaldu eta arazo jakin baten aurrean egindako aukeren abantailak eta desabantailak agertzeko gauza naiz.								
<b>C1</b>	Badakit gai konplexuen inguruko azalpen argi eta zehatzak ematen, ideiak ga- ratu eta zehaztasunez hornitzen eta nire deskribapenak ondorio egokiz biri- biltzen.								
<b>C2</b>	Azalpenak, deskribapenak eta argudioak hitz-jarioz eta argi ematen ditut. Badakit ideiak era logiko eta antolatuan azaltzen eta unean uneko estiloric egokiena erabiltzen, garrantzitsuena iruditzen zaidana nabarmentzeko asmoz.								

## Zer dakit egiten nire hizkuntzetan?

### Idazmena:

A1	Postal laburrak idazten ditut (esaterako, zorianak ematekoak edo oporretakoak); inprimakietan idatz ditzaket nire datu pertsonalak.			
A2	Eguneroko gaien inguruko ohar eta mezu labur eta errazak idazten ditut; gutun pertsonal oinarritzkoenak ere idazten ditut (esaterako, eskerrak ematekoak edo gonbidapenak).			
B1	Testu errazak eta ongi lotuak idazten ditut gai ezagunen edo gogokoen gainean. Gai naiz gutun pertsonaletan nire esperientziak eta irudipenak adierazteko.			
B2	Testu argiak eta zehatzak idazten ditut, nire gogoko hainbat gairen inguruan. Gai naiz idazlanetan informazioa eta aldeko ala kontrako arrazoiak jasotzeko. Eskutitzetan, moldatzen naiz zenbait gertakariren edo esperientziaren garrantzia azpimarratzeko.			
C1	Gai naiz testu luze, argi eta ongi egituratuak osatzeko, neure ikuspuntua adieraziz. Badakit gai konplexuez aritzen gutun, idazlan edo txostenetan, garrantzizkoen iruditzen zaizkidan puntuak azpimarratzen eta testuari dagokion idazkera hautatzen.			
C2	Hainbat testu luze eta konplexu argi eta hitz-jarioz idazten ditut (txostenak, literatura-aipamenak, laburpenak). Gai naiz dagokien idazkera aukeratu, egitura logikoa eta eraginkorra eman eta garrantzitsutzat jotzen dudana nabarmentzeko.			


















## Zer dakit egiten nire inguruko hizkuntzetan?

C1	Erraz jarrai ditzaket taldeko berriketa eta eztabaidak, baita gai abstraktu, konplexu eta ezezagunen ingurukoak ere. Hiztunen asmoei eta ikuspuntuei antzeman diezaieket, baita isilekoei ere.								
	Nire espezialitatekoak diren gai abstraktu eta konplexuen gaineko hitzaldi, irakasgai eta azalpen luzeetako ideia nagusiak ulertzen ditut; testuinguruetatik uler ditzaket ezezagunak zaizkidan zenbait adierazpen ere.								
	Entzuten ditudan diskurtsoetan bereiz ditzaket zenbait esamolde jaso eta formal, eta zenbait esamolde lagunarteko eta arrunt.								
	Irakaslearen jardunean eta hitzaldietan, ezagunak diren gai zientifikoei dagozkien termino bereziak harrapatzen ditut, esanahia beti ezagutzen ez badut ere.								
C2	Inolako zailtasunik gabe ulertzen dut edozein hizkuntza mintzatu mota, bai zuzenekoa eta bai hedabideetako, azkarra, dialektala eta oso jasoa bada ere.								
	Hiztunen berbaldietan atzematen ditut erabilera partikularrak eta alde zurreretik asmatu ezin direnak, esate baterako, ironia, umorea, zentzu bikoitza; ia beti ulertzen dut zein asmo edo esanahi duten.								
	Diskurtsoetako esamolde askoren formalitate maila ezagutzen dut (jasoa, familiartekoa, lagunartekoa).								
	Erraz jarrai ditzaket hitzaldiak, solasaldiak eta aurkezpen akademiko luzeak, baita gai abstraktu, espezializatu edo ezezagunen gainekoak. Ezagutzen ditut jakintza arlo espezializatuetakoa berariazko esamoldeak (terminoak, esapideak).								







## Zer dakit egiten nire inguruko hizkuntzetan?

C1	Gaurkotasuneko gaien gaineko testu zabal eta konplexuak ulertzen ditut enziklopedietan, egunkarietan, interneten eta literatura garaikideko lanetan (ipuin, eleberrri eta poesian). Edukietako informazioa, darien zirrara eta hartzen dituzten ikuspuntu desberdinak ulertzen ditut.								
	Gai naiz testuetako ideia nagusiak eta xehetasunak ulertzeko, ematen duten informazioa, darien zirrara eta hartzen dituzten ikuspuntuak atzemateko. Zenbaitean zati batzuk berrirakurri edo hitzen bat hiztegia bilatu behar izaten dut.								
	Testuan zuzenean esan ez, baina egileak aditzera eman nahi dituen ideia eta informazioak ulertzen ditut.								
C2	Erraz uler dezaket testu luze eta landu sail zabala (artikulu espezializatuak, instrukzioak, literatura, saiakera) hainbat gairen inguruan, nahiz eta gaiak niretzat berriak izan.								
	Hitz-jokoak, ironia, anbiguotasuna eta bestelako hizkuntza-baliabideak atzematen ditut testuetan, baita esanahia eta egileen intentzioa ulertu ere.								
	Testuak modu kritikoan interpretatzen badakit eta ikuspuntuak eta argumentuak atzematen ditut; baita nire iritziarekin bat ez datozen tesiak edo tesi ahul eta gutxi arrazoi-tuak. Egilearen ideologia eta erabiltzen dituen estereotipoak identifikatzen ere badakit.								
	Garbi daukat idazkiek berezitasun eta formalitate maila ezberdinak hartzen dituztela. Ezagutzen ditut jakintza alor espezializatuak dagozkien adierazpenak (terminoak, esapideak), lagunartekoagoak edo formalagoak.								







## Zer dakit egiten nire inguruko hizkuntzetan?

C1	Modu eraginkorren parte hartzen dut elkarrizketa, solasaldi, mahai-inguru, eztabaida eta hizketaldietan. Badakit nire esku hartzea besteenera moldatzen.								
	Nire iritzia eta baieztapenak zehaztasun, zalantza, probabilitate eta beharrian maila ezberdinetan eman ditzaket.								
	Nire hizkera zehatza, zuzena eta jarioarena da. Egoki alda dezaket erritmoa, abiadura eta tonua, egoerara moldatzeko eta helburuak lortzeko.								
	Egoki aukeratzen dut hitza edo esapidea baliabide ugariaren artean.								
C2	Parte hartzen dut era eraginkorren, ahalegin handirik gabe eta oso zuzen elkarrizketa, solasaldi, mahai-inguru, eztabaida eta hitzaldietan. Badakit testuingurura edukia eta tonua egoki moldatzen.								
	Adieraz ditzaket komunikazio helburu guztiak, argi eta mugarik gabe. Gai nahi dudana indartzeko, zalantza saihesteko eta esanahi-ñabardura zorrotzak ezartzeko.								
	Hiztegia egoki menderatzen dut, baita hizkuntza-esapideak eta lagunartekoak, hitz-jokoak, esamoldeak, atsotitzak eta neurtitzak barne.								
	Testuinguru jasotetan lagunartekoetan bezainbesteko hizkuntza-gaitasuna mantentzen dut; adierazpide jasoak eta unean uneko protokolo-formulak ezagutu eta erabiltzen ditut.								
	Egoera bakoitzak zer formalitate edo lagunartekotasun maila duen konturatzen naiz. Antzematen diet nire solaskideek darabilten hizkuntzaren aldaera sozial eta geografikoei, eta horrek berriketa modu eraginkorra mantentzen laguntzen dit.								









## Zer dakit egiten nire inguruko hizkuntzetan?

C1	Ez dut aparteko lanik izaten hainbat gairen gainean jarduteko, nahiz eta batzuk espezializatuak izan. Garbi eta zehatz hitz egiten dut: ideia nagusiak nabarmendu, adibideak jarri eta argudioak eman ditzaket.								
	Hitz egiten dudanean konturatzen naiz ulertzen didaten edo ez, eta, arian-arian, gai naiz hitz egiteko moldea aldatzeko, era horretan gaizkiulertuak saihesteko.								
	Esaldi bakoitzari dagokion tonua ematen diot, nire baieztapenak beharrezko nabarduraz egiteko.								
	Zalantza edo harridura bezalako sentimenduak adieraz ditzaket, zerbaiten gaineko kexa adierazi edo txantxak egin ditzaket eta nire solaskideenganako konplizitatea edo konfiantza azal dezaket. Gai naiz hori guztia zuzenean edo zeharka egiteko, hitz egokiak eta enfasia aukeratuta.								
C2	Zuzen, erraz eta jarioasunez hitz egiten dut jendaurrean, horretaratu nauen egoera edozein izanda ere, eta behar bezain luze eta zabal.								
	Egoerak zein hiztegi eta mintzaera motak eskatzen duen huraxe aukeratu eta erabiltzen dut, arazorik gabe, egoera oso formala edo protokolozkoa izanda ere. Badakit egoera bakoitzari kortesiazko zein formula dagokion eta gauza naiz erabiltzeko.								
	Gauza naiz une bakoitzean zein estilo komeni den atzemateko, eta horretarako, erritmoa, enfasia, ikuspegia edo tonua egokitzeko.								
	Badakit bat-batean jarduten eta unean uneko egoeraren eta entzuleen arabera mintzaldia egokitzen; halaber, badakit alde zuzenetik prestatutako azalpena ustekabeko aldaketen arabera bat-batean moldatzen.								







## Zer dakit egiten nire inguruko hizkuntzetan?

C1	Ikasgelan egin ohi diren lanak egiteko gaitasuna dut: idazlanak, laburpenak, iruzkinak. Badakit informazioa bilatzen eta iritziak eta argudio pertsonalak ematen. Gai bakoitzari dagokion berariazko hiztegia erabiltzen dut.								
	Gai naiz erakundeetara idatziak bidaltzeko: gutunak, eskabideak eta antzekoak. Badakit nolako egitura izan ohi duten era horretako idatziekin eta ezagutzen ditut haietan erabili ohi diren esamolde eta hizkuntza-baliabide ohikoak.								
	Gogoan izaten dut, beti, zerk bultzatu nauen idaztera eta zein izango den hartzailea; horren arabera, idaztinkeraren batean edo bestean idazten dut. Ideiak eta asmoak hainbat modutan idatz ditzaket: zuzen-zuzenean edo zeharka, modu objektiboan edo subjektiboan.								
	Egitura egokia ematen diet testuei eta gaiak zein ideiak paragrafoetan antolatzen ditut. Eskemak eta zirriborroak egin eta testua berridatzi egiten dut; esaldiak modu egokian uztartzeko, joskera konplexua eta hiztegi aberatsa eta joria erabiltzen ditut. Akats tipografiko bakar batzuetan besterik ez dut huts egiten.								
C2	Edozein motatako testua idatz dezaket, bai ikasgelan bai handik kanpo, baita luze samarrak ere eta hizkuntza molde egokian azaltzen ditut asmoak eta ideia guztiak.								
	Badakit gauzak nola adierazi eta ahalegintzen naiz adierazpen horiek egoera bakoitzaren ezaugarrietara egokitzen. Denbora hartzen dut gogoeta egiteko, norentzat eta zein asmotan ari naizen idazten zehazteko; behin baino gehiagotan irakurtzen dut testua, haren gainean zuzenketak egin, eta estilo jaso lortzeko.								
	Ondo moldatzen naiz erregistro formal eta jasoetan ere; joskera konplexua eta lexiko zehatza ez ezik, ortografia zuzena eta kortesiako molde ohikoak ere erabil ditzaket.								
	Erretorikako baliabideak ere erabil ditzaket; hala nola, ironia, umorea edo gauzak nahita ulergaitz samar uztea, konparaketak, hitz-jokoak edo zeharkako galderak, betiere irakurleak antzeman eta ulertzeko moduan.								





## Nola hitz egiten dituzte nire hizkuntzak beste batzuek?

Hitz egitean denok erabiltzen ditugu dialekto, azentu eta hizkera ezberdinak.

Bilatu adibideak.

Nork?	Zein hizkuntza?	Zer gertatzen zaizu deigarri?





# Beste hizkuntza batzuk

Zein beste hizkuntza hitz egiten da nire inguruan? Adibideak bilatu.



Hizkuntza: .....

Nork hitz egiten du? .....

Non entzuten dut? .....

Zer dakit hizkuntza horren ganean? .....

Hizkuntza: .....

Nork hitz egiten du? .....

Non entzuten dut? .....

Zer dakit hizkuntza horren ganean? .....

Hizkuntza: .....

Nork hitz egiten du? .....

Non entzuten dut? .....

Zer dakit hizkuntza horren ganean? .....

Hizkuntza: .....

Nork hitz egiten du? .....

Non entzuten dut? .....

Zer dakit hizkuntza horren ganean? .....



## Nire ikasteko modua

### Nola ikasten dut?

Hizkuntzak ikasteko bakoitzak bere modua du. Ohar zaitetz nola ikasten duten ondoko hauek eta azal ezazu zuk nola egiten duzun.

#### Entzumena

Saiatzen naiz zertaz ari den orokorrean harrapatzen. Egoera asmatzen lagunduko didaten zantzuak bilatzen ditut: ahots-doinua, hitzik garrantzitsuenak, etab. Berdin dit dena ez ulertzeak.



Ni(k): .....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

#### Irakurmena

Irudietan, aurkezpenean... arreta jartzen dut, arrastoren bat emango didan edozertan. Ondoren, azpimarratu egiten dut ulertzen dudana, ezagutzen dudalako edo beste hizkuntzaren baten antzekoa delako... Gero, testuingurua kontuan hartuta, saiatzen naiz hitz gehiago asmatzen. Azkenik, hiztegiara jotzen dut.



Ni(k): .....

.....

.....

.....

.....

.....


.....

.....

.....

.....

.....



### **Elkarrizketa:**

Buruz ikasten ditut esaldi eginak eta ongi ahoskatzen saiatzen naiz. Zer edo zer esaten ez bada-  
kit, keinu bidez aritzen naiz besteek uler nazaten  
edo antzeko esanahia duten hitzak erabiltzen di-  
tut... edo konparazioak egiten ditut: "kamioia  
bezalakoa da, baina txikiagoa". Adibideak ere  
erabiltzen ditut. Garrantzitsuena estualditik irte-  
tea da. Ez dit axola akatsen bat egiteak.



Ni(k): .....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

### **Ahozko adierazpena**

Aldez aurretik prestatzen dut azalpena. Lehen-  
bizi, botako ditudan ideiarik garrantzitsuenekin  
eskema egiten dut. Entzuleen aurrean nagoela  
irudikatzen saiatzen naiz. Batzuetan, oso ga-  
rrantzitsua bada, entsegua egiten dut edo baka-  
rrik nagoela, ozen irakurtzen dut idatzitakoa.



Ni(k): .....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

### **Idazmena:**

Lehendabizi, testuan zer esan nahi dudana pen-  
tsatzen dut. Gero, ideia eta hitz zerrendak idazten  
ditut, ordenarik gabe. Ondoren, lehen zirriborroa  
idazten dut eta testu-liburuan edo hiztegian be-  
giratzen dut, ulertzen ez dudana. Idazkia behin  
baino gehiagotan irakurtzen dut, zuzendu eta  
hobetu ahal izateko. Solas egiterakoan baino  
denbora gehiago izaten dut pentsatzeko eta  
neure burua zuzentzeko. Batzuetan ikaskideekin  
komentatzen ditut zalantzak.



Ni(k): .....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....









# Zer egiten dut ikasgelatik kanpo ikasteko?

Idatz ezazu

## Jarduerak:

	Egiten dut		Egin nahiko nuke	
Beste hizkuntzetako hiztunei idatzi ohi diet.				
Musika entzuten dut eta abestien letrak irakurtzen ditut.				
Nire mailari egokitutako eleberrak irakurtzen ditut.				
Filmak eta telebista-saioak jatorrizko bertsoan ikusten ditut.				
Hizkuntza-irakasgaiko etxeko lanak egiten ditut.				
Hizkuntza erabiltzen duten herrialdean egiten diren ikasle-trukeetan edo egonaldietan parte hartzen dut.				
Udako hizkuntza-kanpaldietara joaten naiz.				
Internet bidez beste hizkuntzekin harremana mantentzen dut (web, chat eta e-postaz).				
.....				
.....				
.....				
.....				
.....				
.....				
.....				
.....				







COUNCIL OF EUROPE    CONSEIL DE L'EUROPE

European Language Portfolio

Portfolio Européen des Langues



# Dosierra

## Bigarren Hezkuntza

# 3



# Dosierra

## Bigarren Hezkuntza

Dosier honek osatzen du Hizkuntzen Portfolio Europarra, Hizkuntzen Pasaporte eta Biografiarekin batera. Biografian eta Pasaportean adierazten den informazioa biltzea du helburu nagusi. Bertan, honako hauek gorde ditzakezu:

- Ikasgelan edo institututik kanpo egindako idazkiak: idazlanak, bestelako lanak, azterketak, etab. Halaber, irakurri eta gustatu zaizkizun testuak.
- Elkarrizketa eta ahozko azalpenen ikus-entzunezko grabazioak.
- Hizkuntzen ikasketa edo kultura arteko esperientzien egiaztagiriak: ikastaroak, eskola-lehiaketak, bidaiia-egitasmoak, etab.
- Beste herrialde batzuetara egindako bisita eta bidaietako oroigarriak, baita beste hizkuntzetan mintzatzen diren ikasleekin eginiko trukeetakoak ere.

Aukera ditzakezu hizkuntzen zure ezagutza hobekien egiaztatzen duten agiriak, zure prestakuntzan esanguratsu izan edo zuretzat esperientzia berezi izan direnak. Dokumentu horiek behatzeak Biografia eta Pasaporte osatzen lagunduko dizute.



COUNCIL OF EUROPE  
CONSEIL DE L'EUROPE

European Language Portfolio  
Portfolio Européen des Langues

Bigarren Hezkuntzako Hizkuntzen Portfolio Europarra  
Egiaztatutako eredua: 52.2003 Zk  
European Language Portfolio for Secondary Education: accredited model No 52.2003

Honakoari aitortua / Awarded to

**MINISTERIO DE EDUCACIÓN  
Y CIENCIA. ESPAÑA**

Eredu hau bat dator Europako printzipio eta norabide komunekin.

KULTURA LANKIDETZARAKO KONTSEILUA  
HEZKUNTZA BATZORDEA-HPERen ONESPEN BATZORDEA

*This model conforms to common Principles and Guidelines.  
STEERING COMMITTEE FOR EDUCATION*



# Lan eta dokumentuen aurkibidea

**Lehen gutunazala:** lan idatziak eta ikus-entzunezko grabazioak:

Izenburua	Hizkuntza	Data	Zergatik aukeratu nuen?

**Bigarren gutunazala:** dokumentuak eta oroigarriak:

Izenburua	Hizkuntza	Data	Zergatik aukeratu nuen?

